

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARITZARAKO HAUTAGAIAREN
UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAREN
GEROA BAI ALDERDIKOA
INBESTIDURA-DISKURTSOA

2015eko uztailaren 20an

Egunon saio honetara etorri zareten foru-parlamentari, gonbidatu eta adiskideoi.

Parlamentari jaun andereok, utzidazue tribuna honetatik esango ditudan lehen hitzak pasa den maiatzaren 24ean askatasunez bere borondatea adierazi zuten nafarrei eskerrak emateko izatea. Parlamentu hau da nafar hiritargoak erabaki duenaren adierazpen erreal eta demokratiko bakarra.

Horrela ba, hemen dauden indar politiko guztiak zorientzen ditut haien proiektu politikoa hautestontzietan babestua izan baita. Hala, huts egingo genuke gure eginkizun politikoaren hasieran legegintzaldi honetan hiritargoak adierazi duenaren irakurketa zuzena eta analisi egokia egingo ez bagenu. Gaur egun gizarteak politikari sutsuki eskatzen diona pertsonen eskakizunei etengabeko arretaren beharra da. Hurbiltasun hori gabe, demokrazia politikarien zerbitzurako tresna organiko hutsa bihurtzen da hiritarrentzako izan ordez.

Parlamentari jaun andereok: hona gainontzekoei zerbitzua ematera etorri gara eta ez gu geu zerbitzatzera. Jendeak haien arazoentzako irtenbideak eta haien bizi baldintzetan hobekuntzak espero dituzte gugandik.

I. MAIATZAK 24

Gaur hemen bildu gaituzten foru-hauteskundearen emaitzek, nire ustez, oinarrizko hiru ondorio uzten dituzte:

1. Lehenik eta behin, eman den parte-hartze handiak, erroldako boto-emateen %70 ingurukoak, nafarrek bizitza politikoan parte hartzeko interes ukaezina adierazten digu. Argi eta garbi adierazi digute politika interesatzen zaiela eta ez daudela prest gure egitekoa haien ezkutuan gauzatuko den egikaritza profesional huts bihurtzen uzteko. Beraz, eskaera horri erantzuteko betebeharra dugu eta politikari herritarrek esleitu dioten garrantzia ematekoa.
2. Bigarrenik, parlamentu honetako eserlekuak begiratzearekin soilik froga daiteke hautestontzietan aukeratu diren aukera politikoaren aniztasun paregabea. Batzuek aniztasun hori kaos eta ezegonkortasun moduan ikusten tematu diren arren nik hemen diot gaur gure gizarteak beti izan duen aberastasunik handienetakoa dela. Nafarroa anitza izan da, da eta izango da eta hori da bere potentzialtasun handienetako bat, eta horrek etengabeko elkarrizketa eraikiorra eskatzen du bere potentzialtasun osoa aprobetxatzeko. Parlamentu hau ez dago zatikaturik: parlamentu hau anitza da, eta berriro ere aniztasun horri balioa eman behar diogu. Jarrera sinplistetatik Nafarroa aurkakotuen argazkia erakutsi nahi izan da, batak edo besteak irabaziz egoera egonkorragoa izango zela zioen diskurtso faltsua erabiliz.

Ba begira: gure gizarteak esan digu bere begiradaren prisma beste bat dela, poliedrikoa, aurpegi gehiago dituena eta figura hori interpretatzen jakinez gero posible dela oraina eta geroa egokiago eta jasangarriago eraikitzea. Ez digute erraz jarri, baina horretarako gaude: politika beste modu batean egiteko gai izateko, forma berriekin, ahalmen handiagoarekin eta adimen gehiagorekin; negoziaketa eta adostasuna erabakiak hartzeko tresna hoberena egiten dituena.

Herritarrek elkar ulertu gaituzten deitu digutela ulertzen ez duena bere erantzukizuna alde batera uzten eta babesleku partidista batean ixten ari da.

Garai politiko berri baten aurrean gaude, aldaketa sakonaren eta erreforma sakonen garaian; baina, batez ere, politika egiteko modua aldatzeko garaian. Eta gogoeta honi berriro ere helduko diot gaur Nafarroan Gobernu berri bat ahalbidetuko duen akordio programatikoa sinatuko duten alderdiekin gauzatutako negoziazioen berri ematen dudanean.

3. Hirugarrenez eta azkenik, pasa den maiatzaren 24an hautestontzi nafarretan lortutako emaitzak aztertzean, eta indar politiko desberdinek aurkeztutako hauteskunde-programak kontuan hartuta, aldaketa-beharra aldarrikatzen zutenek politiketan jarraipena defendatzen zutenekin alderatuz boto-kopuru bikoitza lortu zuten. Zenbatekoak biribilduta, 200.000 nafarrek aldaketaren aldeko botoa eman zuten eta 100.000 nafarrek, berriz, kontinuisismoaren aldeko botoa.

Kanpainaurrean eta kanpainan aldaketaren ezinbesteko beharra goraiatzeko zuten indar politikoren bat, aldaketa ez dela beharrezkoa ondiora –bitxia berau– iritsi ez bada behintzat, Parlamentuan gehiengo nabarmena aldaketaren aldekoa da eta, gainera, aurrerapeneko aldaketaren aldekoa, politika sozialagoetara eta berdintasunezkoagoetara eramango gaituen aldaketa, politika integraztaileagoetara eta Nafarroako kulturaren eta hizkuntzaren errealitatea neurri handiagoan aitortzera eramango gaituen aldaketa. Gehiengo argia eta biribila dugu gure gizartea guztiok eta guztiontzako pentsatutako bizikaltate mailara aurreratuarazteko. Aldaketaren aldeko indar politikoetatik inor ez dela une honetan atzean geldituko hautestontzien agindua den horretatik itxaro eta desio dut.

Beraz, maiatzaren 24ak politika letra larriz egiteko beharra uzten digu, politika adostasun-giroan egitekoa eta politiketan aldaketara bideratzekoa egoera kaskarrean dauden pertsonekin zuzenagoak izan gaitzen.

Zeregin hori erakunde honi dagokio: Parlamentuak izan behar du Nafarroako bizitza politikoaren gunea eta ez beste inork. Hor gauzatu behar dute ideiei, proiektuei eta, azken batean, politikaren diseinuari buruzko eztabaidek. Demokraziak, gobernatzeko modu gisa, duen bertute nagusia eta, segur aski, bertute bakarra, erabakiak etengabe berrikusteko aukera ematen digula da, bizikidetzak baketsuan eta enfrentamendu antzurik gabe.

Hori da aldaketa politikoaren esanahia.

Baina, horretarako, erakundeak zaindu behar ditugu, Parlamentutik hasita: eraginkorra izan dadin eta gobernatzaile ezgauzek demokraziari eta, horrekin, herritarrei... konponbiderik gabeko kalteak eragitea ekiditeko gai izan dadin.

Pasa den uztailaren 17an, ostiralean, Parlamentuaren egoitzan sinatutako Akordio Programatikoa jarduera parlamentarioa eta, batez ere, egoitza honetan Gobernuaren lanaren kontrola sendotzeko, neurri-multzo bat jasotzen du. Exekutiboaren jardunaren baldintza nagusi gisa, nik, gainerako gobernu-taldearekin batera, agertzeko konpromisoa hartzen dut.

Eta, ildo horretatik, akordio programatikoa honako hau ezartzen du:

- Gobernua kontrolatzeko osoko bilkurak egitearen aldeko apustua.
- Gobernuaren Lehendakaritzaren eta dagokien kontseilaritzen agintaldi-kopurua bi agintaldira mugatzea.

- Talde parlamentarioek aldiro informazio nahikoa jasotzen dutela ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea eta, baita, Gobernuaren aurrekontu-egikaritzari dagokionez departamentu eta programa bakoitzean sor daitezkeen zalantza guztiak ebazteko eta argitzeko bide argi eta egokia ere. Horretarako, Nafarroako Parlamentuan aurrekontu-bulego bat eratzea.
- Legeen aurreproiektu arruntak Talde Parlamentario guztiei igortzea, dagokion Lege-Proiektua prestatu aurretik ahalik eta adostasunik handienera iristeko.
- Duten garrantzi politiko eta gizarte-garrantzia handiagatik Nafarroan akordio eta adostasun handiak eskatzen dituzten Legeak ahalik eta talde parlamentario gehien bitartez izapidetuak izan daitezen laguntzea.

Baina Parlamentu hau politika berriak eskatzen duen indar guztiaz hornitzea garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa da –hori posible bada– aldaketa herritarren parte-hartzea irekitzea. Eta herritarrak gizarte ireki gisa hartuta, anitza eta dinamikoa den gizartetzat, muturreko jarrerak eta jarrera totalitarioek eraendu ezin duten gizartetzat. Izan ere, nahiz eta jardun politikoaren protagonista gutxi batzuk izan, politikari guztiok herritarrak jardun politiko epaitzeko gai direla jabetu behar dugu.

Jarrera horrekin eta, berriro ere akordio programatikora itzuliz, “Demokrazia, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea” epigrafean, oro har, bizitza politikoa eta, bereziki, Nafarroan, onbideratzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun 25 neurri zehazten dira.

Garrantzia berezia dutela iruditzen zaidan horietako hainbat puntu zehaztuko dizkizuet:

- Nafarroan bizi diren pertsona guztiei eskubide zibil eta politikoak aitortzea, beren legezko estatutua edozein dela ere. Gure gizarteak ezin dio inori errua egotzi bere jatorriagatik; Nafarroak, duintasunagatik, pertsona guztiak hartu behar ditu.
- Ezinbestez, Kode Etikoa onartzea, Gobernu Onaren eta Bateriaezintasunen Kodean egun indarrean dauden legeak gaindituz zein portaera diren desegokiak zehaztuko duena, prozedura zehatzailea finkatuko duena eta prozedura horri Gobernuarengandik independentea den organo batek hasiera ematea, hura instruitzea eta ebaztea erabakiko duena. Portaera desegokien artean.
- Nafarroako Aurrezki Kutxari dagokionez, Ikerketa-Batzorde berria eratzea.
- Nafarroako Kontuen Ganbera Club Atlético Osasuna Klubaren zerga-zorren kudeaketari buruz prestatzen ari den txostena xehetasunez aztertzea, Klubak legez ezarritako kontu-ikuskaritza gehigarria egiten duela ziurtatzea eta abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legearen, Klubaren zorra berregituratzeari buruzkoaren, aplikazioari buruz ahalik eta gardentasunik handiena erraztea.
- Eta, amaitzeko, eta besteak beste: planteatu daitezkeen etorkizuneko proiektu estrategikoen, edozein kasutan ere, PSIS eta PROSIS, Kontu-Hartzailatzatik abiatuko den eta, hala badagokio, Kontuen Ganberaren onespena edukiko duen, aurretiazko nahitaezko kontrola eduki dezaten beharrezko aldaketak sustatzea.

Jaun andereok: Nafarroak behar duena –eta hemen zaudeten batzuek beste noizbait entzungo zenidaten- ez da izen edo sigla aldaketa bat: balore aldaketa da!

Parlamentuko gehiengoa edukita ere inongo programa edo gobernu ekintzak ez du ezertarako balioko ez baldin badago alde zuzenetik baloreak berreskuratzeko konpromiso argi batek zuzenduta. Oinarri etikoetan datzan eta norbanakoaren arduratik abiatzen den aldaketa: gutariko bakoitzak bere erantzukizuna gain hartu behar du Nafarroa bere onera ekartzeko.

Gure ekintzak eredu garriak izatea behar dugu. Zintzotasunaren balioa azpimarratu eta emandako hitzaren balioa gure ekintzaren ardatz egin behar ditugu. Horrela bakarrik izango gara berriro indartsu eta mundu global eta bizkor bati aurre egiteko gai.

Honengatik, programa akordioan bultzatu duguna balioetan oinarrituriko proposamena izan da: norbanakoaren erantzukizuna, zintzotasuna, fidagarritasuna, argitasuna, argudiaketa, zorrotasuna eta metodoa diagnostikoan, helburuen finkatzea eta ekimenen planifikazioa.

Hauek dira aldaketa martxan jartzeko oinarri demokratikoak: Parlamentuari erabateko begirunea, politikan hiri partaidetza emateko erabateko nahia eta gure gizartean balore etikoak berreskuratzea.

II. GARAI BERRIA / XXI. MENDEKO NAFARROA

Baina parlamentari jaun andereok, aldaketa ezin da nolabaiteko edukirik gabeko mantra huts bihurtu. Ekintza legegile eta exekutiboarentzako gida izateko, lehenetasun eta neurri programa zabala eskatzen zuen. Eta hori izan da hauteskunderen ondorengo bi hilabete hauetan zehar aldaketa politikoarekin bere borondatez konprometitu diren indar politikoaren jarduna.

Gogorarazi nahi dut zeregin horretara pertsonalki deituak izan zirela hauteskontzia iturburu izan zuten indar politiko guztiak, baita, desberdintasun politikoaren logikaren ikuspegitik oposizioren pasara behar zuten indar politikoak ere. Une hartan, nahiz eta gure posizioak oso desberdinak izan, Nafarroaren interes orokorra defendatzeko gutxienezko izendatzaile komunak aurkitu behar ditugunaren uste sendoak gidatu ninduen eta gidatuko nau.

Sentitzen dut abagune hartan oposizioko indar nagusiak nire eskaintza atzera bota zuela esan beharra. Tribuna honetaz baliatuko naiz beste behin ere Nafarroarentzako estrategiak diren gaietan elkarriketa eraikitzailea berriz eskaintzeko.

Buru egin nahi dudana Gobernu honen jardunari zentzua ematen dion akordio programatikoa erdiesteko lan egin dugun moduari arreta eskaintzea eskatu nahiko nuke. Eta horrela egin nahi dut aldaketarekiko eskuzabaltasunetik alderdi politikoak, zeinak, neurri handi batean, koalizioak diren, adostasun-puntuak bilatzeko gai izan direlako metodoz eta beren oinarrienganako hutsik gabeko errespetuz.

Emaitza guztiz berritzailea da, lana ez baita hauteskunde-programen gain soilik egin, baizik eta, mahai sektorialetan eta ikuspegi espezializatuak eskainiz.

Horregatik guztiarengatik, foru-parlamentari guztiei gobernu-programaren jardueraren ildoa nagusiak aurkezteaz harro sentitzen naizela esan behar dut.

Akordioen hedaturari dagokionez, aski da legegintzaldi honetan ezartzeko 600 neurritik gora jasotzen dituela adieraztea. Baimendu iezadazue edozein gobernu

handinahiko gobernu-programa honekin hainbat legegintzaldirako izango lukeela adieraztea.

Noski, nire asmoa programa ahalik eta gehien betetzea da eta horren egikaritzaren kontrola horretarako eratutako jarraipen-batzordeak egingo du.

Akordioak sei bloke edo ardatz nagusi ditu: zerbitzu publikoari eta herritarraren erreskateari buruzkoa; ekonomia, enplegua eta fiskalitatea, industria, merkataritza, turismoa eta lan-harremanak.

Hirugarren tokian, arestian aipatu dudan autogobernua, demokrazia, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bloke programatikoak. Laugarren tokian, tokiko administrazioa, azpiegiturak, ingurumena, landa-garapena eta lurralde-antolamendua. Aniztasuna, bizikidetzak, bakea eta biktimak eta, amaitzeko, funtzio publikoaren, justizia eta barne sailaren bloke programatikoak.

ESKUBIDE SOZIALAK

Nire ustez Ganbera honetan eta Gobernuan jarduteko larrialdi nagusia zein den aipatuz hasiko naiz. Krisi ekonomikoak gehien zigortu duen eta zigortua izaten ari den biztanleriaren sufrimendua, lehenik eta behin, arintzeko eta, ondoren, hari konponbidea emateko berehalakoa jardun behar duten gizarte-politikez ari naiz.

30.000 pertsonak pairatzen dute pobrezia larria Nafarroan; onartezina den datua eta are mingarriagoa gertatzen dena pobrezia horrek gehien txikitxoei eta gutxiengo ahulenei eragiten dienean. Edota, esaterako, iraupen luzeko langabeziaren ehuneko gehitzea eragiten duenean, egun, egoera horrek gure komunitatean langabezia-egoeran dauden 10 pertsonetatik 6ri eragiten die.

Badaude beste datu batzuk, beste estatistika batzuk, bai egia da, baina ez zenbaki hauek ez autokonplazentzia-estatistikek, hauek modu urgentean arintzeko lanerako bokaziorik ez dute.

Horregatik gure akordio programatikoak uste du gizarte-politikak ez direla zerbitzu- eta prestazio-multzo bat soilik, baizik eta, etorkizuneko Gobernuaren jardura guztiak behartzen dituen konpromiso direla.

Horregatik, proposatzen dudak exekutiboaren ereduak Ekonomia Gaietarako Lehendakariordetzaren maila berdina izango duen Eskubide Sozialen Gaietarako Lehendakariordetza sortzea aurreikusten du; bien artean harreman eta koordinazio sakona egongo litzateke.

Programa akordioa errealitateak eskatzen duen bezain handinahia da, eta proposatu dugunaren asmo handiegiatik ere ez da gutxiago posible eta are gutxiago beharrezkoa bere betetzea markatzea hurrengo legegintzaldien jomuga barne. Beste akordio orokorren artean goiz honetan ondorengoak azpimarratu nahi ditut:

- Gizarte-ongizatearen behatoki bat sortzea, gaiari buruz ditugun informazioa eta datuak biltzeko eta gizarte-politiken plangintza eta diseinua bideratzeko azterketa eta analisiak biltzeko eta proposatzeko.
- Gizartearen egoeraren behatoki publiko bat sortzea da asmoa, gizartearen aldarazten duten arrazoi eta faktoreen ikerketa bideratzeko eta eskaera eta beharrak aztertzeko eta, horrela, pobrezia, bazterketari, mendekotasunari eta

gizartearen beharrei buruz gehiago jakiteko eta benetan garatzen laguntzen duten politikek bereziki (osasun-, hezkuntza- eta enplegu-politikek, aberastasunaren birbanaketak eta diru-sarreraren bermeak) adierazleetan duten eraginaren arabera ebaluatu ahal izateko ekintza politikoa.

- Zerbitzu publikoak babestea eta sustatzea:
- Kontratu publikoei buruzko Foru Legeko 9. artikulua betetzea, kontratu publikoen % 6 gutxienez entitate sozialentzat erreserbatzeari dagokionez.
- Entitate sozialen finantzaketa egonkorraren alde egitea; ahal dela, hitzarmenen bidez edo, bestela, hainbat urtetarako deialdien bidez.
- Ituntze-sistema berrantolatzea:
- Gizarte-zerbitzuetako lehen mailako arreta sustatzea, programa guztiak oinarrizko eremu guztietan ezartzea eta Gizarte-zerbitzuei buruzko Legearen bidez toki-entitateek finantzaketa nahikoa izan dezaten ziurtatzea, haiek baitira titularrak. Alde horretatik, lege hori luzaroan aldatzen ez bada, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketa arautzen duen foru-dekretua aldatuko da, epe laburrean.

Eta bereziki nabarmendu nahi dut Gobernu berriak akordio programatikoaren aginduz pertsona guztiei gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko hartuko duen konpromisoa; horretarako, legegintzaldiaren lehenengo 6 hilabetetan, Oinarrizko Errenta ezarriko du.

Etxebizitzaren gaiari dagokionez, bi konpromiso aipatzen ditut: etxebizitzaren plan estrategikoa egitea eta egikaritzea, zeinak, printzipio orokor gisa alokairuko etxebizitzari lehentasuna ematea izango duen eta ez etxebizitza erosteari; eta, horrekin batera, Nafarroako Etxe-Kaleratzeen Aurkako Plataformaren proposamenekin dugun konpromisoa.

Gehiengo parlamentario berriak bere gain hartzen du Ongizate Estatuaren habeak bere osotasunean berreskuratzeko erronka; eta Nafarroakoa bezalako egungo gizartean menpekotasuna bete-betean ekin beharreko arazo nagusienetakoan bihurtu da. Menpekotasun-egora jasaten duten milaka familien bizimodua bideragarri egiteko gure eskura dauden tresna guztiak martxan jartzeko gai izan behar dugu. Aurrekontuetan gastu-zama izatetik urrun, Menpekotasunaren arloan egindako inbertsioak enplegua sortzen duten gizarte-azpiegiturak eraikitzea dakar eta, are garrantzitsuagoa dena, elkarbizi den gizartearen iraunkortasuna ahalbidetzen du. Familian menpekotasun-arazoa ez da aparte dagoen arazoa: gu guztion arazoa da eta, lehenik eta behin, Ganbera honen arazoa. Horregatik, legegintzaldian zehar, Menpekotasunaren Foru-Lege bat prestatuko dugu.

Baina gaia orokortasunean jorratuko duen testu legegilea iritsi bitartean, erabakiak hartu beharko dira, horien artean, menpekotasun-egoeraren balorazioan erabiltzen den denbora hiru hilabetera murriztea eta itxaro-zerrenda ezabatzea bai balorazioan bai dagozkion baliabideen aplikazioan; eta, baita, laguntza ekonomikoen zenbatekoak eta ezaugarriak murrizketa ororen aurreko egoerara lehengoratzea ere.

Gizarte honek plangintza behar du eta, dagokigun kasukoa bezalako gaietan, berriz, modu urgentean behar du. Horrela, Hautzaroaren Plan berria egingo dugu, Hautzaroa babesteko sistemetan eta horretara bideratutako zerbitzuen kudeaketan ikuspegi metodologiko berri bat ekarriko duena. Halaber, Zahartze aktiboa Programa bat ere martxan jarriko dugu.

Pentsioek ere gure arreta-gune izan behar dute eta Nafarroan gai horretan ekimena hartzeko gai izan bagara, horretan jarraitu behar dugu gure adinekoen beharrei erantzuteko. Beraz, orain alarguntasun-pentsioa jasotzen dutenek duten osagarria gainerako pentsionistengana orokortzeko beharrezko neurriak hartuko ditugu.

ENPLEGUA

Baztertutako gutxiengoan gizarte-larrialdiak baditugu, urgente arduratu behar dugu nafar gehienak gehien kezkatzen dituen larrialdiaz, enpleguaz, hain zuzen ere. Ezin dugu onartu onartezina den %15 edo %16 inguruko langabezia-tasa duen gizartea; eta, are gutxiago, langabe dauden pertsona-multzo horren baitan iraupen luzeko langabezia oso ehuneko handietara iristea edota langabezia, bereziki, besteak beste, gazteen, emakumeen edo 50 urtetik gorakoek taldeei gehien eragitea.

Azken batean, ez da zenbateko kuantitatiboa kezkatu behar gaituen bakarra, baizik eta, baita, bereziki, nori eragiten dien ere.

Horregatik, enplegua eskubideekin sortzea eta sendotzea, hau da, kalitatezko enplegua, ordainsari, egonkortasun, segurtasun, garapen profesionaleko perspektiba eta gainerako laneko baldintzetan ulertuta, erreferentziazko xede da Gobernu berriarentzako.

Eta, horretarako, Gobernu honek gogor egingo du lan Nafarroaren ikuspegi estrategiko partekatua giza garapen iraunkorraren habeen gain sendotzeko, hots, bideragarritasun ekonomikoa, gizarte- eta lurralde-kohesioa eta gure ingurumenaren zaintza orekatua.

Xede horiekin koherentea den inolako ekimenik arbuiatu gabe, Gobernu berriak industria aurreratuaren, energia berriztagarrien eta energia-eraginkortasunaren, osasunaren eta hari lotutako zerbitzuen, lehen mailako sektorearen eta nekazaritzako elikagaien sektorearen, turismo integralaren, zerbitzu aurreratuaren eta teknologia berrien eta sektore estrategikoen aldeko apustua egingo du. Teknologiari dagokionez punta-puntako industria, ingurumena errespetatuko duena, kudeaketan langileen parte-hartzea sustatuko duena; eta, industria endogenoari dagokionez, lurraldean zehar zabaldutako industria, eskualde bakoitzeko errealitatearekiko hurbila dena. Lurraldearen errealitatera egokitutako turismoa, eskaintzaren kalitatea bere sektore estrategiko desberdinetan sustatuko duena, hots: landa-turismoa, gastronomia, baliabide naturalak eta iraunkortasuna, kultura eta ondare historikoa eta aisialdia.

Epe ertainerako eta luzerako ikuspegi horrekin koherente izanik eta kalitatezko enplegua sortzeko eta sendotzeko ezinbesteko premisa horri dagokionez, Gobernuak Inbertsioa – Finantzaketa binomioarekin, I+G+i-rekin, lanbide-heziketarekin, nazioartekotzearekin, gizarte-ekonomiarekin eta tokiko garapen-egiturekin konpromiso estrategikoari eta aurrekontu-konpromiso iraunkorrari eutsiko dio. Enpresa-ehunarekin aukerak, harreman egonkorak eta naturalak finkatuko dira optimizatzeko, tipologia desberdinak daudenaz jabetuz, alegia, bai konpainia handiak (nahiz multinazionalak izan nahiz erabaki-gunea hemen eduki) bai ETEak eta, azken kasu horretan, kudeaketako eremu desberdinetan mota guztietako ekimen kolaboratzaileak sustatuz.

Eremu horietako bakoitzean, jarduera-planen testuinguruan, ekimen zehatzak gauzatuko dira dagozkien xedeekin eta adierazleekin, esaterako, zailtasunak dituzten enpresentzako alerta-sistema goiztiarra, gizarte-ekonomiari eta solidarioari laguntzeko plan integrala, Sodena-k industria suspertzea eta enplegua sortzea, energia-eraginkortasunaren alorrean inbertsioak sustatzea, nazioartekotzerako ekimen kolaboratzaileak sustatzeko eta bultzatzeko programa, nekazaritzako elikagaien

sektorean eta sektore energetikoan aukeren berriazko azterketa biomasaren bitartez, sozialki arduratsua den ekoizpen-etiketa sustatzea eta abar xede dituen funts bat kudeatzeko aukera aztertzea.

Testuinguru horretan, Gobernu berriak denda txikiekin duen konpromisoa ere berretsi nahi dut, zehazki, teknologia berriak, hiria suspertzeko planak, kontsumitzailea informatzeko udal-bulegoen eta eskualdeetako enpresa sarea sustatzearen bitartez eta, baita, kontsumo alternatiboaren formulak eta zirkuitu laburrak edo zuzeneko salmenta ezartzera bideratutakoak sustatzeko formulak ere.

Horretaz gain, nazioarte-mailan, bereziki, Europan, Nafarroaren ikuskera sendotzeko asmoarekin, Europako instantzia desberdinetan egun duen presentziari eusteaz gain, ordezkari berreskuratu da Bruselan, EAE-Akitania Euroeskualdean berriro sartzeko eskaera egingo da eta Euromontana-n duen presentzia bultzatuko da.

Lan-harremani dagokienez, Gobernu berriak eragile sozioekonomiko nagusiekin harreman naturala eta egonkorra edukiko du, uneoro, aurreko paragrafotan marraztutako ikuspegiaren baitan, kalitatezko enplegua sortzen eta sendotzen – erreferentziazko xedea– lagunduko duten adostasunak lortzen saiatuz.

Testuinguru horretan, legeak eta erregelamenduak aldatuko dira “ordezkari handiena duen sindikatua” irizpidea baino parte hartzeko irizpide inklusiboagoa sartuz. Gizarte Elkarrizketaren Kontseiluaren finantzaketa-partida kenduko du, ordezkari oinarritutako finantzaketa gehituko du eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Gobernu-Kontseiluaren estatutuak aldatuko ditu bere erabakiak, orain arte bezala, aho batez hartuak izan ez daitezkeen, baizik eta, desio den adostasuna lortzen ez bada, Gobernuak erabakiak hartzeko eskumena eduki dezan.

Eta eragile ekonomikoekin Gizarte Elkarrizketaren Kontseilua, aldaketa egokiekin, mantentzearen egokitasunari edota hura indargabetzeari eta beste aukera batzuk bilatzeari buruz gogoeta egingo dugu.

Edonola ere, gizarte-lan babestuekin dugun konpromisoari eutsiko diogu eta Lanbide-Heziketarako Institutuen sare publikoa sendotuko da, lanerako prestakuntzarako nahiz etengabeko prestakuntzarako baliabide gisa.

Laneko arriskuei aurrea hartzeko legediaren betetzea hobetzeko mekanismoak aztertuko dira. Estatuarekiko harremanen esparruan, laneko ikuskaritzarako erabilgarri dauden baliabideak gehitzeko formulak erabakiko dira.

Halaber, bai eremu pribatuan bai funtzio publikoaren eremuan lana banatzeko mekanismoak sustatuko dituzten formulak aztertuko dira.

FISKALITATEA

Dauzkan eskubide historikoen ondorioz, Nafarroak gaitasun fiskala dauka, eta gaitasun hori da oinarritako tresna gure komunitatean garapen ekonomiko zuzena eta jasangarria lortzeko. Horregatik da politika fiskala funtsezko gaia, inolako zalantzarik gabe.

Gehiegitan egoten da bitartekoak helburuarekin nahasteko joera. Sistema fiskalak funtsezko eginkizun bat dauka: beharrezko baliabideak sortzea, Gobernuak, besteak beste, ekonomia bultzatzeko funtsak konprometi ditzan eta, era horretan, kalitatezko enplegua sortzen eta finkatzen lagun dezan; baita oinarritako zerbitzuak eskainiko

direla ziurtatzeko ere, tartean, batez ere, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko aukera ematen dutenak. Beraz, kontua ez da, kosta ahala kosta, ahalik eta zergarik txikienak ezartzea, baizik eta bidezko sistema bat edukitzea, zuzena eta progresiboa, gure ingurunekeo sistema fiskalak nolakoak diren kontuan hartuta, eraginkortasunez inbertituta, lortu nahi dugun gizarte-eredua finkatzeko aukera emango digun behar adina diru biltzea ahalbideratuko duena.

Uda ondoren erreforma fiskala aurkezteko konpromisoa hartzen du Gobernu honek; erreforma hori 2016ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta legealdi osoan zehar egongo da indarrean, baldin eta ez bada beste aldaketarik eskatzen duen aldaketa garrantzitsurik gertatzen inguruan. Erreforma fiskalak zorrotz errespetatuko ditu programa-akordioan jasotako konpromisoak.

Bestalde, iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurka borrokatzeko jarduketa indartuko dira. Berehala ebaluatuko da iruzurraren aurka borrokatzeko indarrean dagoen 2014-2017 planaren ezarpen-maila, eta lehenbailehen hartuko dira, beharrezkoak baldin badira, neurri zuzentzaileak; eta, nolahi ere, 2016-2019 aldirako plan berria prestatuko da, iruzur fiskalari aurre egiteko. Besteak beste, nabarmen gehituko dira datorren legealdian zehar esparru horretan espezializatutako giza baliabideak.

Testuinguru horretan bertan, jakinekoa eta agerikoa da Nafarroak zerga arloan daukan autogobernuak birzentralizatzeko presio handia jasan behar izan duela azkeneko urteotan. Gobernuak gertutik zainduko du Hitzarmen Ekonomikoaren legean eta Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoak berriki egin den aldaketa bikoitzaren funtzionamendua, eta, hala badagokio, berrikuspenen bat planteatzeko aukera baloratuko du.

Bestalde, Nafarroak Estatuako kargei urtero egiten dien ekarpenak eta Estatuak Nafarroari ordaintzen dizkion zeharkako zergen doikuntzak zenbateko oso handiak dituzte, eta kontu handiz kudeatu behar dira. Gainera, une honetan, Gobernuak bosturteko ekonomiko berriaren oinarritzko urtea –2015– finkatzeko funtsezko erronkari aurre egin behar dio. Gero eta konplexuagoak eta garrantzitsuagoak diren zenbateko horiek bat etorritz, Gobernuak beharrezko giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarriko ditu Estatuarekin gai horretan dituen alde biko harremanak hobeto aztertzeko, prestatzeko eta horien jarraipena egiteko.

Halaber, Gobernuak era aktiboan defendatuko ditu Estatuaren aurrean kalitatezko enplegua sortzen eta finkatzen eta oinarritzko zerbitzuei eusten lagun diezaieketen gai guztiak; hala nola, zeharkako zergen arloan hainbat eskumen bereganatzea; aurrekontuen egonkortasuna lortzeko helburuz aberastasuna sortzen duten inbertsio estrategikoen kontabilitateko irizpideak aldatzea; eta gastuaren erregela deritzonaren nahitaezkotasuna bertan behera uztea, eta dagoeneko ezagunak diren defizit eta zor helburuak.

Era berean, gogor lan egingo dugu aurrekontuen kudeaketa hobetzeko, bai sarreraren aurreikuspenak prestatzeari dagokionez, bai gastuen aurrekontua prestatzeari dagokionez –zero oinarriko irizpideak sartuko dira– eta aurrekontuaren betearazpenaren jarraipenari dagokionez –eraginkortasunari dagozkion helburuak eta adierazleak sartuko dira, eta legezko berme guztiak izango dituen sistema bat ezarriko da, ziurtatuko duena aurrekontuaren betearazpenaren inguruko informazio zuzena denbora errealean izango dutela parlamentuko taldeek–. Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen protagonismoa sustatuko da aurrekontuak prestatzeko prozesuan, eta, PFEZ aitortpena aprobetxatuta, aurrekontuetako lehentasunen definizioan herritarrek parte hartzeko dauden aukerak aztertuko dira.

Reino Arena, Los Arcoseko Zirkuituarekin, Sendavivarekin, Osasunarekin eta Camino Autobiarekin gertatutakoari dagokionez, Nafarroako Kontuen Ganbarak egindako txostenak aztertuko dira, egon daitezkeen erantzukizunak argitzeko azterketa juridiko sakonagoa egingo da, eta herritarren aurrean azalduko dira azterketaren ondorioak. Osasunaren kasuan, gainera, klubaren zorra berregituratzeko Foru Legea betetzeari dagokionez galdagarria den konpromisoa bultzatuko da, eta Osasunak bere zerga-betebeharrak bete ditzan –beste edozein zergadunek bezala– zainduko da.

Erabateko gardentasunaren testuinguru horretan, 1990etik honako zorraren jatorriari eta bilakaerari buruzko txostena egingo du, aurrekontuen bilakaerarekiko paraleloan.

Ondorioz, enpleguari, politika ekonomikoari eta zergei dagokienez, Gobernuaren jardunaren ardatza izan behar da krisialdian pobretu diren gure familien errentak berreskuratzea, kalitatezko enplegua sortuta eta batez besteko soldatak handituta. Lurraldeari dagokionez, garapen ekonomiko harmoniatsua, giro berritzaile batean, talentua eta inbertsio produktiboak erakarriko dituen giro batean. Eta, azkenik, iruzurra errotik kenduko duen politika fiskala, aberastasunaren banaketan benetan progresiboa izango dena.

Eta gure politika fiskalak, enplegua sortzekoak edo politika sozialak oinarrizkoak badira, ez dira posible izango etorkizunean, baldin eta ez bagara gai gure etorkizuneko belaunaldiak Ongizateko Estatuaren babesle nagusi bilakatuko dituen hezkuntza sistema zaintzeko.

HEZKUNTZA

Hezkuntza izango da zuzenduko dudana Gobernuaren obsesioa, hezkuntza baita aurrerapena eta gure herritarren askatasuna bermatzeko modu bakarra. Hezkuntza sistemaren administrazioaren arduradun garen aldetik, behartuta gaude hezkuntza eskaintza publikoaren aldeko apustua egin eta eskaintza horrekiko konpromisoa hartzeko. Eta alferrikako eztabaidetan sartu gabe, argi eta garbi utzi nahi dut kalitatea eta bikaintasuna helburu dituzten hezkuntza eskaintza guztien aldeko apustua egiteko borondate irmoa daukadala. Horregatik, Hezkuntza Sistemaren Kalitate eta Ebaluaziorako Nafarroako Institutua sortuko dugu, Nafarroan hezkuntza ereduen Europako abangoardia izan gaitezkeelako eta izan behar dugulako. Eta hori diot badauzkagulako beharrezko tresnak eta giza baliabideak haur hezkuntzatik hasi eta gradu-ondokoen mailara arteko eskaintza integral bat antolatzeko, baita etengabeko prestakuntzaren handinahitik gure adinekoei zuzendutako prestakuntzara artekoa ere.

Garrantzi handikoak dira hezkuntzaren arloan irakaskuntzaren unibertsaltasuna eta kalitatea bermatuko dituzten legezko eta betearazpeneko neurriak; hala ere, ezin dugu ahaztu politikariok gutxitan erreparatzen diogun alderdi bat, komunitate pedagogikoak funtsezko piezatzat jotzen duena lehen adierazi ditudan helburuak lortzeko. Ikasgeletako giroaz ari naiz; hots: ikasleek zein irakasleek beren eginkizuna baldintzarik onenetan betetzeko sustatu behar den giroaz. Gobernu berriaren bide-orrian egongo da ildo horretan egin beharreko erreformak aztertzea eta abian jartzea ere.

Eta neurri zehatzei dagokienez, hasteko eta behin, berriz esango dut LOMCE legearen aurka gaudela eta lege hori indargabetzea defendatzen dugula. Zentzu horretan, iragarri nahi dut lege hori Nafarroan ezar ez dadin beharrezko mekanismo guztiak martxan jarriko ditugula, baita gure eskumenei dagozkien guztiak ere legea indargabetu dadin.

Euskarazko irakaskuntzaren esparruan, berriz, dagoeneko aurreko legealdian erabakitakoa garatzen duen neurri bat: D eredia Nafarroako hezkuntza-sare publiko osora hedatzea, horretarako araudia idatzita. Prozesu horretan guztian zehar, jakina, kontuan izango ditugu denbora guzti honetan zehar foru administrazioak egin behar zukeen lana egin dutenak: eremu ez euskalduneko ikastolak, alegia.

Eta, uzten badidazue, minutu batzuk eskaini nahiko nizkioke, oposizioak egin dizkion kritikak ikusita, PAI programaren hedapenean urtebeteko moratoria ezartzeko hartu dugun erabakiari. Moratoriaren helburua da egungo programa diseinatzea eta hizkuntzen tratamendu bateraturako plan berri bat diseinatzea eta curriculumean sartzea.

Izan ere, legebiltzarkideok, egungo sistema ez dago ebaluatuta eta, beraz, ezta sistema horren ustezko eraginkortasuna ere.

Hel diezaiozun gaiari: Legeak curriculumeko derrigorrezko ikasgai gisa ezartzen ditu ingelesa eta atzerriko beste hizkuntza batzuk; inork ez du hori kentzerik, asmo txarrez esan izan den bezala.

Aitzitik, gobernu honek atzerriko hizkuntzen ikaskuntza bultzatuko du –ingelesa eta beste batzuk–, hemen gaztelera-euskara elebitasun egoera batetik abiatzeko suposatzen duen aukera aprobetxatuta, elebitasunak erraztu egiten baitu hurrengo hizkuntzen ikaskuntza.

Eta gobernu hau saiatuko da gauzak ondo eginten... UPNren gobernuak oso gaizki egin baititu. Irakasleek, aldiz, ahalegin ikaragarria egin dute zuhurtzia gutxiko neurrietara egokitzeko, beren ikasleei ahalik eta kalterik txikiena eragitearren.

Horixe da, hain zuzen ere, gobernu honek egingo duena. Zentzu komunak eskatzen duena egingo du: PAI programa ebaluatzea, alegia. Izan ere, orain arte ez da ebaluaziorik egin; eta, begira, Madrilen esaterako, Carlos III. Unibertsitateak programa horren ebaluazioa egin zuen 2004tik 2011ra, eta frogatu zuten programa horrek “eragin negatiboa izan duela ingelesez irakatsitako ikasgaiaren ikaskuntzan, gehienez derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabengan”. Hau da, kalte handiagoa eragin die sozialki ahulagoak direnei.

Programa horren egoera hemen zein den jakin nahi dugu, haurren belaunaldi oso baten trebakuntza baitago jokoan.

Baina nire gobernuak ez du atzera bakarrik begiratuko, etorkizunera begira ere jarriko da, eta Hizkuntzen Tratamendu Integraturako plana diseinatuko du. Hau da, gure ikasleek harremana duten hizkuntza guztiek –berezkoak dituzten bi hizkuntzak eta atzerriko hizkuntza batek edo bik– tratamendu integratua izan dezatela nahi dugu, hizkuntza horietako batean ikasten dutenak besteetarako ere balio diezaien; noski, norberaren bi hizkuntzek erabilerarako bestelako esparruak izango dituzte, eta atzerrikoek beste erabilera batzuk.

Hori guztia curriculumean sartu beharko da ondoren; eta horretarako, Gobernuak sustatuko du prozesu horretan irakasleek, adituek eta, oro har, hezkuntza komunitateak parte hartzea, bai eta inplikaturako bestelako eragile sozialek ere

Azpiegituren eta urte anitzeko zuzkidura ekonomikoei dagokienez, esanda geratzen da akordioak luze eta zabal jasotzen duena.

Hizkuntza politikari dagokionez, berriz, neure gain hartzen ditut puntuz puntu

programa-akordioak jasotzen dituen konpromisoak, kontuan hartuta etorkizunean eszenatoki handinahiagoa landu dezakegula, euskara Nafarroako herritarrak – euskaldunak zein ez euskaldunak– harro sentitzeko arrazoia izan dadin:

Konpromiso horiek, puntuz puntu, neure gain hartzen ditudala diot, eta konpromiso horien oinarri den filosofia gehitzen dut orain:

“Euskara Nafarroako hizkuntzetako bat dela. Hizkuntza gutxitua; horregatik, beharrezkoa da hizkuntza berreskuratzeko prozesu bat, Nafarroako herritar guztiak aberastuko dituen eta onurak ekarriko dizkiena.

Urte gehiegi eman ditugu euskara baztertu duen hizkuntza politika batekin, eta orain beharrezkoa da politika berri bat abian jartzea, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituen eta hizkuntza normalkuntzan aurrera egingo duena, ondorengo printzipioetan oinarrituta:

- Zeharkako politika, eragina izango duena politika publiko guztietan eta gizarte arloan.
- Progresiboa eta egoera soziolinguistiko anitzetara egokitua.
- Eraginkorra, eta ondo planifikatu eta ebaluatutakoa.
- Parte-hartzailea; herritarrekin eta euskara sustatzeko lanean diharduten eragile sozialekin lankidetzan.
- Hizkuntza eskubideak betetzeko bidean aurrera egiten lagunduko duen araudi egoki baten babesa izango duena.
- Euskarari prestigio soziala emango diona.
- Askatasuna eta borondatezkotasuna. Uste dugu politika publikoen esparruan Nafarroako Gobernuak izan behar dela hizkuntza politika proaktiboa eta positiboa bultzatuko duen eragile nagusia, hala nahi duten herritarrei administrazioarekin euskaraz komunikatzeko aukera bermatuz. Esparru sozialean, uste dugu elementu estrategikoak direla helduen alfabetizazioa eta euskalduntzea eta euskarazko komunikabideak.

OSASUNA

Osasuneko zerbitzu publikoei dagokienean, oinarri-oinarrian kontuan izan behar dugu osasuna funtsezko giza eskubidea dela. Eta hori diot, begi bistakoa izan behar lukeen arren, azken urteetan aurrekontuan bidegabeko murrizketak egitearen ondorioz, gure Erkidegoan eskubide horiek izan behar zituzten pertsonak zalantzan ikusi baitituzte.

Gainerako herritarren antzera, gure osasun zerbitzu publikoen prestazioaren kalitatean hondamen argia jasan dute.

Nafarroako osasuna, batez ere profesionalen lanari esker, Europako bikaintasunaren abangoardia izan da hamarkadetan zehar. Beraz, erreferentzia-marka hori berreskuratzea izango da gobernu berriaren helburu nagusia. Era horretan, profesional horien inplikazioa eta konpromisoa berreskuratu behar da, gehiago parte hartzeko eredu batean.

Baina gure ahaleginak eskuragarritasuna, berdintasuna eta kalitatea ere bermatu behar ditu osasun-arretan, Erkidego osoan. Eta, bereziki aipatu nahi ditut oso urrun aurkitzen diren edo joatea erraza ez den landa-guneak, lehen arretako zerbitzuak, zerbitzu etengabeak eta larrialdikoak zalantzan jarri baitira, legealdi honetan desagertu ez direnean.

Ezbairik gabe, osasun-prestazioen kalitateak proportzionaltasun zuzena du egiten den aurrekontu-inbertsioarekin. Eta gobernatzea baliabide horiek banatzerakoan lehenetsunak ezartzea da. Zuzentzea espero dudan gobernuak osasuna bermatzea lehenetsuneko helburua izango du, nafarrek eta gure erkidegoan bizi diren pertsona guztiek jasotzeko eskubidea duten osasuna izan dezaten.

BERDINTASUNA

Berdintasun arloan, gure akordioak esaten duen moduan, aldarrikatu nahi dut gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna dela berdinen artean bizikidetzako gizartea eraikitzeko eta diskriminazioa eta indarkeria sexista errotik ateratzeko aukera bakarra.

Eta aldaketaren Gobernuan, gure helburua da politika publikoak aldatzea, gizonen eta emakumeen arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna argi eta garbi defendatuaz, emakume guztientzat baldintza sozial eta ekonomiko duinak bermatze aldera.

Modu horretan, iragarri nahi dugu INAI berreskuratuko dugula, Berdintasunerako Nafarroako Institutu gisa; halaber, Genero Berdintasunerako Foru Legea egingo dugu eta Nafarroako Gobernurako Barneko Berdintasun Plana, negozio kolektiboarekin lotuta.

Baina premien larrialdirik handienez, Plan Estrategiko bat berehala garatuko dugu, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jokatzeko beharrezko baliabide eta guzti.

GAZTERIA ETA KIROLA

Gazteriaren arloan, zuzenak izango gara; hots, bi erronka ditugu: etxebizitza eskuratzea eta enplegu duina eta kalitatezkoa izatea. Gure gazteen talentua ez aprobetxatzea edo beste lurralde batzuetan aukera hobekak bilatzen uztea xahubide soziala da, eta hori ezin dezakegu baimendu. Emantzipatzeko gaitasunik gabeko generazioak, hots, lanposturik eta etxebizitza duinik gabe, ezin du etorkizunean Nafarroan bizitzeko itxaropenik izan. Beraz, badugu zer egin!

Aldaketa sakona egin beharra daukagu kirol arloan ere; halaxe zor diogu Nafarroako gizarteari:

Lehenik eta behin, gure ustez oinarrizko kirolak adin guztiak hartzen ditu. Era guztietako jarduerak sustatu behar dira adin goiztiarrentzat, eta hirugarren adinekoek ere kirola egitea bultzatu behar da. Beraz, aldaketa sakona sorkuntzan.

Baina neurri instrumentalak ere aldatu behar dira; esate baterako, etorkizuneko Gobernuak konpromisoa hartu behar du instalazioak beste erakundeei uztea baimentzeko araudia aldatzeko.

KULTURA

Azkenik, zerbitzu publikoen eta kulturaren atalean, garbi utzi behar da kultur politikak bi helburu dituela:

- Alde batetik, balioak, bizitzeko moduak sustatzea, horiekin gizartea kohesionatzea eta honako hauetan oinarritutako elkarbizitza-esparruak osatzea: aniztasuna, askatasuna, sormena, justizia soziala, inklusioa, parte-hartzea eta demokrazia.
- Bestetik, kulturaren dimentsio sortzailea eta berritzailea ahalik eta gehien hedatzea, egungo gizarteek aurrean dituzten erronkei erantzuna emate aldera. Politika kulturalaren erronka berria da gertutasunean eta parte-hartzean oinarrituriko garapen komunitarioa gauzatzea.

Gobernu berriaren helburu nagusia izango da Nafarroan kulturaren duintasuna berreskuratzea, dibertsitatean duen aberastasunaren ikuspegitik ulertuta. Horretarako, Kultura Departamentuari aurrekontu duina eman behar zaio, inbertsio hori garapen sozio-ekonomikoaren motore ere bilakatu dadin.

AUTOGOBERNUA

Aipatzen ari dudan programa akordioak Nafarroarentzako proiektu bat dauka, Nafarroa subiranoagoa, bere autogobernu osoagoaren ideiarekin bat datorrena.

Horrela esan digute hautestontziek.

Nafarrek, urte luzez Estatuaren aurrean Nafarroaren interesen defentsaren arduraren eman den utzikeriaren ondoren, autogobernuaren defentsa eta bultzada handiagoa eskatzen digute orain.

Instantzia guztietan Nafarroaren autogobernua nafarron interes orokorrerako, eta eskusiboki nafarrona irmotasunez defendatzeko konpromisoa hartzen dut.

Gogo bizi horretan, programa akordioak banan-banan aipatu nahiko nituzkeen proposamen zehatzak ditu.

Lehenik:

- -Egungo autogobernuaren eta Estatuarekiko harremanen kudeaketa
- -Parlamentuko taldeei Hitzarmenaren negoziazioaren helburuak finkatzen eta Estatuak Nafarroari eskualdatu ez dizkion eskumenak negoziatzen parte hartzeko aukera ematea eta negoziazioetan herritarrekin gardentasunez jokatzeko konpromisoa hartzea.

Lehentasanak:

- Estatuari bosturteko berriko (2015-2019 aldiko) oinarri-urtean egin beharreko ekarpena negoziatzea eta aurrekoak ixtea (2013-2014).
- Nafarroak bere gain hartzea ikerketa, garapen eta berrikuntzaren, zirkulazioaren eta espetxeen gaineko eskumenak.

- Defizit- eta zorpetze-helburuak bete egiten diren kalkulatzeko helburuetarako, aberastasuna eta enplegua sortzen duten inbertsio estrategikoak kontabilizatzeko irizpideak aldatzeko aukera negoziatzea.
- Hitzarmen Ekonomikoaren Legean eta Autonomia-erkidegoen finantzaketari buruzko Legean berriki egindako bi aldaketen ondorioak ebaluatzea eta berrikusketarik planteatzea komeni den aztertzea.
- Defizit- eta zorpetze-helburuak betetzeko eskakizunaz gain aurrekontuen egonkortasunari buruzko legeak eskakizuntzat ezarritako gastu-araua nahitaezkoa izateari buruz negoziatzea Estatuarekin.
- Defizit-helburuak betetzen dituzten toki-entitateek soberakinak beste helburu batzuetarako erabili ahal izan ditzaten negoziatzea Estatuarekin.
- Konstituzioko 150.2. artikulua arautzen dituen eskumen-eskualdatze eta -eskuordetzeak Nafarroaren eskumen-esparruaren alde erabiltzea.
- Ahots propioa entzunaraztea Europan eta nazioarteko harremanetan eta eskumen eskusibo propioen eta autogobernuaren alde egitea Europako erakundeetan.
- Auzotasun- eta lankidetzaharreman onak izatea autonomia-erkidego mugakideekin eta EAerekiko harremanak normalizatzea eta sustatzea.
- Nafarroa Behereko udalera harremanetan sakontzea, Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko herritarren arteko lotura historiko, sozial eta kultural bereziak lehengoratzeko eta estutzeko.
- Nafarroa, Akitania eta Euskadi elkarlanean aritzeko protokoloari berriro heltzea, Europa mailako aukerak hobetzeko, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sistemaren aldaketek eta estatuz haraindiko harremanen estutzeak inguruko eskualdeekin batera lan egitera (baterako politikak aplikatzera) behartzen baitute.
- Europako eskualdeek elkarrekin osatzeko prozesuaren barruan Nafarroarentzat interesgarriak diren beste instantzia batzuk areago gara daitezkeen bultzatzea; adibidez, Europa Atlantikoaren Hegoaldeko Eskualdeen Konferentzia eta Pirinioetako Lan Komunitatea –1983an sortu zen Komunitatea–.
- Frantziako eta Espainiako lurralde-entitateen arteko mugaz haraindiko lankidetzak sustatzea eta sozietate zibilak lankidetzak horrek ematen dituen aukerak aprobetxatzen parte har dezan ahalegintzea.

TOKI-ADMINISTRAZIOA

Toki-administrazioari dagokionean, etorkizuneko Gobernuaren erronka nagusia da hasiko den legegaldian gure toki-administrazioaren aldaketa atzerazteari heltzea. Izan ere, erreforma hori aho batez eskatu da Parlamentu honetan behin baino gehiagotan, eta orain arte Gobernuak ez da gai izan arrakastaz egiteko. Horretarako, datozen bi urteetan, tokikoaren egungo egoerari buruzko diagnostikoa egitea proposatzen dugu, eta, horrela, toki erakundeek horren partaide direla sentitu behar dute; beraz, prozesua

parte-hartzailea izango da. Behin diagnostikoa eginda, eskumen-esparrua, finantzaketa-esparrua edo Nafarroako toki-erakundeentzat nahi dugun egitura edo mapa definituko ditugu, eta legealdiaren bigarren zatian horretarako beharrezkoak diren legegintza-proiektuak garatuko ditugu.

Baina hori erronka nagusia izanik, zuzendu nahi dudan Gobernuak berehala jorratuko ditu itxaron ezin duten zenbait neurri. Era horretan,

- Berehala bermatuko dugu toki erakundeek datozen bi urteetan jaso ditzatela transferentzia arrunten funtsaren gainean egun onartuta dituzten zenbatekoak, behar bezala eguneratuta KPI+2rekin.
- Irtenbide iragankorrak eta funts espezifikoak ezarriko ditugu, aukera ekonomikoen barnean, erakundeek aukera izan dezaten inbertsio presazkoenak garatzeko, urteak baitaramatzate gauzatu gabe aurreko Toki Azpiegituren 2009-2012 Planaren blokeoa dela-eta, beste plan bat diseinatu eta abian jartzen den bitartean.
- Juridikoki onartezinak diren baldintzak kenduko ditugu, Nafarroako Kontseiluak berak adierazi bezala; esate baterako, Ikurren egungo Legea bete beharra, Udalei dagozkien kopuruak jasotzeko, korporatiboen ekarpenak finantzatzen dituztenak.

LURRALDE ANTOLAMENDUA

Gure xedea lurralde-antolamenduari indar gehiago ematea da udaleko hirigintza-araudiei koherentzia emango dieten marko arautzaileak izan daitezen, arreta berezia emanez arlo hauei: mugikortasuna, ura, energia, berdeguneak eta gizarte-ekipamenduak, lehendik dauden agiriak oinarri hartuta (Lurralde Antolamenduko Planak edo LAO).

Mugikortasunaren alorrean bereziki, xede hauek bete nahi ditugu: lege integrala idaztea Nafarroako mugikortasun iraunkorrerako eta garraiorako; 2009-2016 Errepideen III. Plana berrikustea eta eguneratzea, eta lehentasunezko jarduerak ezartzea; A-15 Iruña-Tutera tartearen egungo egoera aztertzea eta aukera ezberdinak planteatzea, hiri-arteko Garraio Planaren jarduerak berrikustea eta neurri ezberdinak aztertzea, esaterako Iruñako eskualdeko garraioaren txartel bateratua ezartzea.

LANDA GARAPENA

Alor honetan toki-garapenerako egiturak indartzea nahitaezkoa da, eta Gobernuarekin lankidetzan aritzea ere bai. Gainera, etorkizuneko Gobernuak Nafarroa-Euskadi-Akitania euroeskualdean berriz sartzeko asmoa dauka, eta Landa Garapen Iraunkorreko Plana berrikustea ere bai, Europar Batasunean zenbateko maniobra-marjina daukagun aztertuz, parametro argi batzuk oinarri hartuta; besteak beste: elikagaien balio-kate osoan presente dagoen lehen sektore berritzaileari eta dibertsifikatuari babesa ematea; lehen sektoreko langileei prestakuntza erraztea eta produktu ekologikoen eta tokiko arrazen garapena eta egonkortzea bultzatzea.

INGURUMENA

Ingurumen alorrean Nafarroarentzako ingurumen estrategia integrala eta zeharkakoa landu, onartu eta ezarriko ditugu 2020ko jomugan, gizarte eragile eta hiritarren prozesu parte hartzaile baten bidez finkaturiko helburu, xede eta jarraipen adierazleekin. Datorren gobernuak Europar Batasunaren 20/20/20 konpromisoa bere egiten du (emisioen %20ko murrizketa; energia-eraginkortasun %20 gehiago eta energia berriztagarrietatik eratorritako %20a azken energian), berotegi-efektu gasen eta osasunarentzako kaltegarriak diren edozein gas eta partikula motaren murrizketari bereziki ekinez.

Ingurumen Sailak biodibertsitate alorrean ekimen zehatza burutuko du gure lurraldean bere galera ekiditeko. Ur alorrean ere eta Uraren Direktiba Markoarekin bat, komunitate araudiaren ondorengo garapen guztia kontutan hartuko dituen ekimena garatuz.

Hondakinen alorrean, hondakin frakzio ezberdinen tratamendu zehatzerako neurriak areagotuz ekingo zaio, bai eta gaikako bilketa sistemen eta tratamendu aurreratuagoen aldeko apustua eginez, tokiko errealitate bakoitzari hobe egokituz. Aurreko legegintzaldian Hondakin Plana (PIGRIM) baztertu ondoren gaur egungo egoera kontutan hartuz, egun martxan den hausnarketa prozesuari ekitearen aldeko apustua egiten dugu, sozietate zibila eta inplikaturiko eragileen arteko prozesu parte hartzaile egoki baten bidez plan berri bat definitzeko. Marko honetan eta aurreko Planaren errausketa behin baztertuta, errefusa frakzioarentzako irtenbiderik egokiena bilatzen saiatuko gara, Europa mailan eztabaidatzen ari diren proiektu normatibo aurreratuenekin bat eta ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ingurumenarekikotik, frakzio honen tratamendurako teknika egokien aldeko apustua eginez.

ENERGIA

Azkenik, energia alorrean kanpo dependentzia energetikoa murrizteko lan egitea da gure helburua, energiaren kudeaketan horniketa bermea, kostua eta ingurumen jasangarritasuna diren hiru funtsezko aspektuak kontutan hartuz eta orekatuz.

Horretarako, Nafarroarentzako Energia Plana berraztertuko dugu 2025eko jomugan energia berriztagarrien garapenaren eta energiaren erabilpen zentzudunaren aldeko apustua eginez. Alor honetan kontutan hartu diren neurri ezberdinen artean, datorren Gobernuak energia politika guztia eta klima aldaketa kudeatzeko, erakunde publiko baten sorrera bultzatzea planteatzen du, horrela, besteak beste, orain arte CRANAK burutzen zituen funtzioak bere eginez.

AZPIEGITURAK

Azpiegituren alorrean, etorkizuneko Gobernuak azterketa indibidualizatuak egingo ditu, eta arreta berezia emango die polemikoenak direnei. Hauek dira adibiderik aipagarrienak:

- Pirinioetako autobidea (bidesariaren gainkostua ebaluatzea itzalean, eta espediente guztia aztertzea Estatuari ordainak eskatzeko, hala badagokio).
- Nafarroako kanalaren zabalkundearen lehen faseko zona ureztagarriaren ezkutuko bidesaria, eta onartutako gainkostu finantzarioa murrizteko formulak aztertzea.

- Gendulaingo Udalez Gaindiko Azpiegituren Sektore Plana, helburu honetarako: ordezkatzen duen modeloaren kontrako jarrera politiko batetik abiatuta, orain arte egindako kudeaketak eduki ditzakeen aurrekontu-inplikazioak eta arrisku juridikoak balioztatzea.
- Navarra Arena (aukerak bilatzea foruko diru-kutxek gutxiago ordain dezaten zuzkidura horretarako).
- Gauza bera gertatzen da Arkuen Zirkuituaren kasuan (egungo kudeaketa hurbiletik jarraituta)
- Sendaviva (indarreko negozio-plana berrikustea eta neurriak hartzeko induzitutako inpaktu ekonomikoa eguneratzea)
- Bardeetako tiro eremua (Estatuari desegitea exijitzea)
- 121-A errepidea Europako Zuzendaritzara egokitzea (Belate) eta eskakizunak aztertzea.
- Yesa handiagotzea, eta handiagotze horren etetea Estatuan defendatzea.
- Udalez Gaindiko Azpiegituren Sektore Plana. Aintzat hartuta irudi horri emandako erabilera, proposatu dute etorkizunean berrikus dadila Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Arauaren 42. artikulua, zehaztasun handiagoarekin mugatzeko eta gehiegikeria ez oso errespetutsuak ekiditeko datxekien erakundeetako udal-autonomiarekin.

Trenbidearen alorrean eta aldirikoei dagokienez, Gobernu honek Renferekin hitz egiteko konpromisoa hartu du, Iruñako geltokiaren eta herrien arteko ordu-tegiak eta maiztasunak hobetzeko aukerak balora ditzaten bidezko azterketak egin eta gero.

Ibilbide luzeko trenbideari dagokionez, eta epe luzera Nafarroa pertsonentzako eta salgaientzako trenbide-irtenbide batekin Atlantikoko eta Mediterraneoko korridoretik kanpo ez geratzeko apustua egiten bada ere, Gobernu honek erabaki du une honetan urrats administratiborik ez ematea Estatuarekin hitzartutako Campanas-Castejón tarteari dagokionez, eta egoera zorrotasun osoz aztertzea.

BAKEA ETA BIZIKIDETZA

Baina badira beste "azpiegitura" batzuk zerikusia daukatena barne-indartzearekin, gizarte baten bizikidetzarekin...

Parlamentuko jaun-andreok, Nafarroak hamarkada gehiegitan jasan ditu indarkeria-mota bidegabeak eta giza eskubideen, zibilien eta politikoen urratzeak. Aro politiko berri baten aurrean gaude, eta denok konpromiso sendo bat hartu dugu bakearekin, normaltasunarekin eta bizikidetzaren demokratikoarekin. Pertsonen duintasuna eta oinarritzko giza eskubide guztiak kontu handiz errespetatuz, akordio programatiko hau sinatu dugun indarrok indarkeria xede politikoen erabiltzeari errefusa marraz izenpetu dugu.

Une honetan bizi dugun bakeak biktima guztiei oroimena, justizia eta ordaina bermatu behar die salbuespenik gabe. Eta egindako kaltearen aitortzea eta biktimen egia jakiteko eskubidea exijitzen ditu.

Bakeak eta memoriak konpromiso horren beharra daukate, baina baita eguneroko lanarena ere, askotan diskretua eta ezezaguna dena. Ildo horretatik, akordio programatikoaren VI. kapituluak argi eta garbi zehazten du ibilbide-orria, gure lurraldetik indarkeria baztertu eta biktimak haien oroimenean gogobetetzeko neurri eraginkorrak ezartzearen bidez.

FUNTZIO PUBLIKOA

Eta inbestidura honi zentzua ematen dion akordio programatikoaren azalpenari amaiera emateko, Funtzio Publikoa, Justizia eta Herrizaingoa aipatu nahi ditut.

XXI. mendeko gizartearen bereizgarria aldatzeko daukan dinamismo izugarria da. Segurtasun osoz, denboraren eta espazioaren ekuazioa da egungo aldaketaren faktore nagusia: zerbitzu publikoek parametro horiek aintzat hartzen ez badituzte, errealitateari bizkar emanez bizi direla esan nahi du. Gure administrazioa koordinatu horietara egokitu behar da, eta, horretarako, Funtzio Publikoa berriz definitzea eta Foru Administrazioa berriz dimentsionatzea proposatu dugu.

Gure tresna administratiboak egunean jarri behar ditugu, eta, halaber, gure funtzionarioen talentuari eta adimenari ahalik eta etekinik handiena atera behar diegu.

Justizia eta Herrizaingo sailetan, nahikotasun finantzarioaren alorrean ahaleginak egingo ditugu, eta, bestalde, jakinarazi behar dugu bi gai horietan egin gabe geratu diren transferentziak aldarrikatzeko lan egingo dugula. Besteak beste, Nafarroak bere Hobekuntza Legean jasota daukan trafikoko eskumena, aurrez aipatu diren beste batzuekin batera egonean dagoena...

Eta, amaitzeko, guztiok hausnarketa txiki bat egin dezagula nahiko nuke, Lehendakaritza, Funtzio publikoa, Justizia eta Herrizaingo Sailetakoko diru-zorroaren ardura Maria Jose Beaumont hautagaiari emateko iragarpenaren aurrean jasotako kritikengatik.

Inolako oinarririk ez daukaten akusazio larriak egin dira, eta gertatutakoen manipulazio gogorrak ere bai.

Hasteko, Euskalerrria Bildu alderdi politikoak Geroa Bai alderdiak proposatutako gobernu-eredua onartu zuen, eta argi geratu da zuzenduko dudana Gobernu hau ez dela partiduen arteko koalizio-eredua, eta erronkari aurre egiteko gaitasun teknikoa daukaten profilek osatuko dutela, egoitza honetan legebiltzarkideen gehiengoa eratzten duten sentzibilitate politiko ezberdinei arreta emanez ez bairik gabe.

Horrenbestez: gezur borobila da Gobernuaren eratu duten sailburuek diziplina politiko baten aginduz beteko dutela kargua.

Eta berriz diot: Aldaketaren Gobernuaren ez da lautarikoa, ez Geroa Bai, ez Bildu, ez Podemos ezta I-E alderdiarena ere...Nafar guztion Gobernuaren da, bakarra, eta parlamentuko botoei erantzuten die bakar-bakarrik.

Bigarrenik, pertsona baten ohorea zalantzan jartzea —kasu honetan Beaumont andrea— funtzio horretarako gomendatu duenarengatik soilik, haren ibilbide pertsonala eta profesionala aintzat hartu gabe, ONARTEZINA da, eta defendatuko dudana demokrazia honetan horrelako jarrerak desterratzea da nire asmoa.

III. ALDAKETARAKO GOBERNU BAT

Parlamentuko jaun-andreok: azaletik azaldu dizuedan akordio programatikoa ikusita, irrigarri ere geratzen da Nafarroan abiarazi den aldaketa zehaztugabetzat, lausotzat edo ezgaitzat kalifikatu nahi duena.

Aitzitik, esan diezadakezue, edukia badut ere, nola eta nor aurrera eraman faltako liratekeela.

Aldaketarako proiektu batek horren neurrirako gobernu-eredua behar du, eta proiektu hori gauzatzeko gaitasuna duen pertsona-taldea ere bai. Bada, planteatu dudako Gobernuaren xehatuko dizuet, ondoren.

Lehenbiziko helburua da gai eta politika sozialei garrantzirik handiena ematea, zehaztu dudak bezala, benetako premiak baitira gure erkidegoan: enplegua eta bazterkeria. Horregatik, Gizarte Eskubideen lehendakariordetza sortuko dugu, gizarte-politikak, enplegua eta etxebizitza bilduko dituen.

Horrekin paraleloan, lehendakariordetza ekonomikoa sortuko da, garapen ekonomikoari zein fiskalitateari eta Hitzarmenaren tresnari dagozkionak bilduko dituen.

Lehendakariordetza biak izango dira aldaketaren funtsezko motorra, eta harreman eta lankidetzak estuan jardungo dira. Kontuan izan behar dugu gastua kontrolatzen duen administrazio bat eraman behar dugula aurrera, gure gizartean benetan behar dituen inbertsioei lehentasuna eman ahal izateko, hain zuzen ere.

Gainerako sailak akordio programatikoa zentzua ematen dioten blokeetara egokitzen dira, akordioa ahalik eta modurik eraginkorrean burutzeko.

Azkenik, akordio on bat nahiz gobernu-eredu on bat ez lirateke aldaketa hezurramitzeko nahikoak izango, haien ibilbidearengatik eta ezagutzengatik kontseilari izateko erantzukizuna beren gain hartzeko ezin hobeak diren pertsonak ez bagenitu. Benetan sinesten dut hurrengo Gobernuaren parte izango diren ibilbideak aise irakurritako —gutxieneko objektibotasun bat eduki nahi bada—, ikusten dela kasu guztietan kargua hartzeko gaitasun nabarmena dutela.

Eremu publikoan zerbitzua eman duenaren umiltasunetik, orain Nafarroaren aldaketari zentzua ematen dion anbizio handiko programa hau aurrera eramateko gai garelako erakustea baino ez zaigu geratzen.

Zuzentzea espero dudako Gobernuak —saio honetan zuen konfiantza lortzen badut— ez ditu ezinikusiak eta mendekua ulertzen. Izan ere, herritarrek denboran zehar biziraun nahi duen zentzuzko aldaketa bat eskatu digute eta aldaketa horrek ez ditu ezinikusiak eta mendekua ulertzen ere. Parte-hartzailea eta guztiontzako da, nahiz eta askok akatsak egin ditzagun amets egiten duten... haiek egin dituzten akats berdinak, alegia.

Agian, subkontzienteak huts egiten die edo guztiok haien modukoak garelako uste dute; baina lasai egon daitezke, iraganean egindako kudeaketak uzten dien heinean behintzat.

Zuen denbora berria oposizioaren lan duina egitera dedika ezazue, gai zareten indar guztiarekin: horixe da nafarrek eman dizueten funtzioa. Eta zuen aisian, zuen etxea eta

Nafarroarentzat duzuen etorkizun-proiektua ordenatzen saia zaitezte.

IV. ALDAKETAREN ALDEKO KONPROMISOA

Parlamentuko jaun-andreok: hastear dugun aro politikoak zoritxarrez egunez egun gutxiago erabiltzen den kontzeptu baten beharra dauka. Altruismo-politika bat behar du: besteei modu konstruktiboan zerbitzua eman behar diegu. Egoerak muturrekotzat har litekeen jokaera eskatzen du; baina zerbitzu publikoak eta politikak sinesgarritasuna galdu du ustelkeria-kasuengatik eta krisiaren larritasunarengatik, eta, une hauetan, altruistak izan gaitezen eskatzen digute.

Argitasunarekiko obsesioak gidatu behar gaitu, gainera. Argi izatearen borondatearen eta argudioak emateko ahaleginen arteko konbinazio batek. Azken finean: diagnostikoan zorrotz izateko konpromisoa izan behar da jarduera politikoaren abiapuntua. Horrez gain, demokraziaren defentsarekin tematuta egon behar dugu, metodoa aztertuz. Boluntarismoak ez du ekintza politikorako balio, inolaz ere, eta are gutxiago krisi-une hauetan. Metodoa, lanaren antolakuntza eta helburuak ordenarekin deskribatzea dira politika demokratikoaren izaera eta tresna.

Eta amaitzeko, esan nahi dut guk, politikariok, gure sinesmenekin are eta leialago izan, orduan eta hobeto ari garela Nafarroarentzat lanean. Sinesmen horiek nafar izatearen harrotasuna berreskuratzea eraman behar gaituzte.

Langabezia garaitzeko moduko enpresa-espíritu indartsua, etikoa eta parekidea duen Nafarroa bat ikusi nahi dut. Bikaintasuna eta ahalegina baloratu eta errespetatzen dituen Nafarroa bat. Eskubideak errespetatzen dituen, eta balio etikoak lehenesten dituen. Munduan konfiantza pizten duen Nafarroa bat, gizarte aske batean bizitzearen abantaila handiak baloratzen dituen, eta horiek sutuki defendatu nahi dituen.

Haren ondareaz harro dagoen Nafarroa bat...

Ta ondareen ondare, gure historia, gure kultura: Axularrek zioen arabera,

“Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzatzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertez anhitz lekhutan”.

Beraz, hori marraztu nahi dugun Nafarroa:

Belaunaldi gazteenak hazten ikusi nahi ditugun gizartea; zaharrenak ere beren bizitzaren azken txanpan zaintzeko eta bakea emateko nahi dugun gizarte bera.

Elkar banaturiko lan ingurua eta elkar banatutako esfortzua ere, gure inguruaren, gure ingurumen aberastasunaren, gure kultura gordetzearen, gure aukera ekonomikoen eta gure elkarbizitza erronken aldeko apustuak etorkizun hoberena duela ziurtatuko diguna. Euskararen, hezkuntzaren, gizarte berdintasunaren erreferente den osasungintzaren, aniztasunaren adierazle hoberena den elkartasunaren etorkizunean, Nafarroa funtsezko lurralde moduan bere lekua duela zuzen eta harrotasunez begiratzeko garaia.

Gizarte honek erantzunak, esfortzua, lana, ahaleginak... behar dituelako. Bai, hori

guztia baina ilusioz ere. Ilusioa behar dugu, ez bakarrik jakitea etorkizuna egungo unea baino xamurragoa izango dela, izan behar duela; gaur, oraintxe bertan, aurretik jarriko zaizkigun erronkei aurre egiteko egoeran gaudela jakin behar dugu.

Eta hori helburu politiko bat da ere, are gehiago, lurralde honetan, herri honetan aldaketaren funtsezko helburuetako bat: etorkizunaren aurrean inoiz galdu behar izan ez genuen ilusioa ekartzea.

Parlamentuko jaun-andreok: Nafarroa horrengatik, gizarte horrengatik nago hemen, eta Nafarroa hori eraikitzen laguntzeko zuon konfiantza eskatzen dut.